

## **ITZARRI BGAE**

### **Sozietatearen izena**

Itzarri - Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea

### **IFK**

V01373885

### **Izaera**

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak

### **Kontabilitate-araubidea**

Pribatua.

### **Aurrekontu-araubidea**

Gutxi gorabeherakoa.

### **Sorrera**

[2004ko uztailaren 27an Jaurlaritzaren Kontseiluak](#) entitatea eratzea erabaki zuen eta Estatutuak eta dagozkion Prestazioak erregulatzen dituen Araua onartzea. 2004ko uztailaren 30ean Lan eta Gizarte Segurantza sailburuordeak emandako 125/2004 Ebazpenaren bidez, Itzarri BGAeren Estatutuak, Prestazioen Erregelamendua eta Txosten Ekonomikoa onartu ziren, eta Euskadiko Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen erregistroan inskribatu zen 260-A erregistro-zenbakiarekin.

### **Sail-atxikipena**

Herri Administrazioa eta Justizia.

### **EJSN**

6512 Bizi aseguruak ez diren aseguruak

### **Helburua eta xedeak**

Erakundearen helburu soziala da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren zerbitzuko langileek egiaztatutako prestazio publikoak osatzea, langileak erretiroa hartzen duenean edo ezintasun iraunkorra, heriotza edo epe luzeko langabezia gertatzen denean. Jardun-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da.

### **Sailkapena kontabilitate nazionalean**

Finantza-erakundeak.

### **Mutua-fondoa**

30.000 €

2012ko abenduaren 31n dagoen Mutua Funtza, Eusko Jaurlaritzak entitatea eratu zenean bazkide sustatzaile gisa jarri zuena da, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruz indarrean zegoen araudiak ezarritako gutxieneko zenbatekoa estaltze aldera, eta ez da bazkide eta onuradunen eskubide finkatuen parte.

## **Bazkideak**

Gaur egun, 90.000 bazkide oso baino gehiago ditu BGAEak.

## **Gobernu-organoak**

Batzar Orokorra da gobernu-organo gorena. Guztira 100 kide ditu, 50 bazkide sustatzaileek izendatuak eta beste 50 zentral sindikalek izendatuak.

Gobernu Batzarrari dagokio erakundearen zuzendaritza eta ordezkaritza. 16 kide izango ditu, 8 bazkide babesleen ordezkariak eta beste 8 bazkide osoen ordezkariak. Batzar Orokorraren aurrean erantzungo du.

## **2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak**

Aktiboa guztira	474.421 mila €
Ondare garbia	430 mila €
Ekarpen definituko gizarte-aurreikuspenari lotutako inbertsioen diru-sarrerak	138.026 mila €
Batez besteko langile-kopurua	8

## **Sozietatearen helbidea**

San Antonio, 2 - 01005 Gasteiz (Araba)

## **Webgunea**

[www.itzarri.com](http://www.itzarri.com)